

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SISTEMA MEKANIKOEN ABIARAZTEA ETA ERREGULAZIOA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0457		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	ekoizpen mekanikoa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ekipo-ondasunen eta industria-makinen muntaketa eta abiaraztea	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Sistema mekanikoak muntatzeko, konpontzeko eta martxan jartzeko teknikak	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa	Iraupena	70

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1263\_2: SISTEMA MEKANIKOAK MUNTATZEA, KONPONTZEA ETA MARTXAN JARTZEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zehatz eta seguru egitea doitze- eta erregulatzeko eragiketarako multzo mekanikoetan, sistema bakoitzerako zehaztutako prozedurak eta erremintak erabiliz, eta ekipoak doitzeko baldintzak betez.

E1.1 Makinak eraikitze erabiltzen diren doitze-sistemak deskribatzea.

E1.2 Elementu mekanikoen arteko akoplamenturako doitze egokiak aukeratzea, kontuan izanik piezen arteko mugimendu erlatiboak, esfortzuak eta ukipen-luzerak.

E1.3 Teknika metrologikoak eta egiaztapen-tresnak erabiltzea, eta haien ezaugarriak deskribatzea.

E1.4 Multzo mekaniko bat (abiadura-erreduktorea, abiadura-aldagailua...) doitzeko eta erregulatzeko eragiketarako egitea, espezifikazio teknikoari jarraituz:

- Multzoko elementu bakoitza identifikatzea eta karakterizatzea.
- Elementuetako bakoitza desmuntatzea eta garbitzea, teknika eta tresna egokiak erabiliz.
- Elementuen azal funtzionalen neurrien espezifikazioak eta egoerak aztertzea, behar den ekipoa erabiliz.
- Azal lauak eta zilindrikoak, eszentrikotasunak, gurpilen hortzak eta abar aztertzea, behar diren ekipoak erabiliz.
- Elementu bakoitza muntatzea eta martxan jartzeko prest uztea, pieza hondatuak ordeztuz (hala badagokio), eta, eragiketa bakoitzean, akoplamentu- eta funtzionaltasun-kondizioak aztertuz.
- Multzo mekanikoa doitzea eta prestatzea, emandako espezifikazioak betez, eta ongi funtzionatzen duen begiratzea.

##### Edukiak

##### 1. Multzo mekanikoen doikuntza

- o Doitze-sistemak.
- o Doitze mekanikoko erremintak eta tresnak.
- o Pieza mugikorren arteko esfortzuak eta neurri-ezaugarriak.
- o Teknika metrologikoak erabiltzea.
- o Doitze-parametroak zehaztea.

##### 2. Makinen ainguraketak eta nibelatzeak

- o Makinen ainguraketa-motak.
- o Zimenduak.
- o Makinak nibelatzea.

##### 3. Industria-makinen abiaraztea

- o Industria-makinen funtzionamendua.
- o Segurtasun-osagaien azterketa.
- o Industria-makinen eta haien osagaien manipulazioa.
- o Espezifikazioak betetzen diren begiratzea.

#### 4. Multzo mekanikoen erregulazioa

- Funtzionamenduaren diagnostikoa.
- Matxuren sintomak eta kausak.
- Erregulazioen eta mugitzen diren elementuen manipulazioa.

#### 5. Ekipo-ondasunen eta industria-makinen segurtasunari buruzko dokumentuak eta araudia

- Fitxa teknikoak eguneratzea.
- Abiarazte-egunkaria.
- Ohar teknikoak eta egokitzapenak.
- Ohiko erabilerarako onartzea makina.
- Makinetan jarduteko segurtasuna.
- Arau harmonizatuak: motak eta sailkapena.
- Ezarpen- eta aztertze-irizpideak.

### C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

#### Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0456 gainditua izan behar du: Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ekipo-ondasunen eta industria-makinen muntaketa eta abiaraztea.